# IZEN-EMATEKO FITXA

Ikastetxearen IDa

**Eman izena Elkartasun-kilometroen XV. edizioan.**
Bete izena emateko fitxa eta bidal iezaguzu 2018ko urriaren 20a baino lehen. (Izena emateko epea igaro bada, jarri harremanetan gurekin 91 513 05 00 telefonoan.)

Eman izena
**savethechildren.es/inscribetekm** webgunean

Bidali fitxa mezu elektroniko bidez
**carrera@savethechildren.org** helbidera

Deitu
**91 513 05 00**
telefono-zenbakira

Bidali fax bidez
**91 552 32 72**
telefono-zenbakira

**Bete itzazu datu hauek, jarduera hobeto prestatu ahal izateko.**

**Jardueraren koordinatzailea**

Izen-abizenak
Helbide elektronikoa | Telefonoa
Kargua edo irakasgaia | Sinadura

**Parte hartuko duen irakaslea**

Izen-abizenak
Helbide elektronikoa | Telefonoa
Kargua edo irakasgaia | Sinadura

**Ikastetxearen datuak** (adierazi datu hauetan izandako edozein aldaketa)

Izena
Helbidea | PK
Herria | Probintzia | Telefonoa
Helbide elektronikoa

**Parte hartuko duen ikasle kopurua**
(gutxi gorabehera)

**Parte hartuko duten irakasleak**

**Jarduera egingo den data gutxi**

**Korrikalarientzako materiala**

Dortsalak
Diplomak
Korrikalariaren txartela

(izan ahalik eta zehatzenak behar dituzuen kopuruetan. Horrela, hobeto kudeatuko ditugu materialak. Materialen bat behar ez baduzue, idatzi zero dagokion laukitxoan. Eskerrik asko!)

Indarrean den datu pertsonalen babesari buruzko araudiari jarraiki, jakinarazten dizuegu Save the Children Fundazioak tratatuko dituela zure datu pertsonalak gure arteko harremana administratiboki kudeatzeko eta eskola-jarduerei buruzko informazioa emateko, eta dagokion koadroa markatuz zure onespena emanez gero, informazio solidarioei buruzko komunikazioak bidaltzeko. Datuen tratamendu hori ezinbestekoa da akordio hau gauzatu ahal izateko eta legitimatuta geratzen da emandako onespenerako adierazitako xedeetarako. Bereizita adieraz dezakezu ez duzula komunikazio komertzialik jaso nahi, eta horrek ez du baldintzatuko akordioa exekutatzea.

Datuak legez ezarritako denboran gordeko dira edo zuk atzera egin arte.

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko, eramateko eta tratamendua mugatzeko eskubideak gauzatu nahi izatera, bidali idatzi bat helbide elektroniko honetara: lopd@savethechildren.org edo helbide honetara: FUNDACIÓN SAVE THE CHILDREN, c/ Doctor Esquerdo, 138, 2ª planta, 28007 de Madril, zure nortasuna egiaztatzen duen NANaren kopia batekin batera. Edonola ere, eskubidea duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.

☐ Markatu koadro hau informazio-materiala jaso nahi baduzu.



## 1919-2019 EHUN URTE HAURREN ESKUBIDEAK GAUZATZEN

1919an, I. Mundu Gerra amaitu eta gutxira, Eglantyne Jebb irakasle ingelesak kanpaina bat abiarazi zuen protesta egiteko eta gerraren ondorioek markatutako Austriako haurrak laguntzeko funtsak biltzeko.

Errebeldia horrek epaitegira eraman zuten aurkariaren traidore-aliatua izateagatik, baina bere indarrarekin absoluzioa lortu zuen eta fiskalak eta ehunka britainiarrek haurrentzako dirua dohaintzan ematea lortu zuen. Guztiek batera, garai hartako 10.000 libera biltzea lortu zuten, Austriako eta Alemaniako milaka haur elikatzeko. **1919ko maiatzaren 19an sortu zen Save the Children, giza larrialdi bati erantzuteko lehen erantzuna abiaraztearekin batera.**

Ikasturte honetan 100 urte beteko ditugu eta 15 urte daramatzagu irakasleen eta ikasleen alboan… gure lana egin ahal izaten lagunduz. Neska-mutilei laguntzen jarraitzeko, zuen laguntza jasotzen jarraitu behar dugu.

Gure mendeurrena ospatzera gonbidatzen zaituztegu elkartasun-lasterketa batekin eta **erronka handi batekin: milioi bat haurrek gerrak eskolarik gabe utzi dituen beste milioi bat haurri laguntzea.**

**Batera lortu ahal izango dugu!**



***"Save the Children-ek sarritan entzuten du helburuak ezinezkoak direla, beti egon direla sufritzen duten haurrak eta beti egongo direla. Badakigu guztia posible dela, guk ezinezko egin ezean. Saiatzea ahalegintzen ez garen hori soilik da ezinezko."***

Eglantyne Jebb



# ELKARTASUN KILOMETROAK

Save the Children

*XV. edizioa. Eskola-lasterketa. 2018-2019*

15 urte haurren
eskubideen alde korrika

*Apunta zaitez!*

# HEZKUNTZA-ESKUBIDEAREN ALDEKO ESKOLA-LASTERKETA



**ERRONKA BAT**

**Milioi bat haurrek beste haur batzuei laguntzea**

**CURRICULUMEKO ARLOAK**

- Ingurumena eta Gizarte-zientziak
- Heziketa fisikoa
- Balio etikoak eta gizarte-balioak eta balio zibikoak

## HEZKUNTZARIK GABE EZ DIRA INOIZ IRITSIKO AMESTEN DUTENA IZATERA

Haur guztiek dute ikasteko eta babestuta egoteko eskubidea, baina eskubide hori desagertu egiten da haur batek bere jaioterritik ihes egin behar duenean. Gure helburua da errefuxiatu bezala bizi diren edo gatazka armatuen biktima diren haur guztiek beren hezkuntza berreskuratzea amesten dutena izatera hel daitezen.

## NOLA LORTUKO DUGU HELBURU HORI?

**Haurrei laguntzen dieten haurrak: haurren eskubideen aldeko lasterketarekin.** Bertan, haurrek zapatilak jantzi, korrika egin eta gure hezkuntza-, biziraute- eta babes-programari laguntzeko funtsak lortzen dituzte.

## LASTERKETA BAT BAINO GEHIAGO, HEZKUNTZA-PROIEKTU BAT

- **Kirola:** jarduera fisiko bat da bizimodu osasuntsu bat izateko ohiturak bultzatu eta baloietan hezteko.
- **Pedagogikoa:** beste errealitate batzuk ezagutu eta munduan diren injustiziak testuinguruan jartzen laguntzen dien material didaktikoa banatzen zaie ikasleei.
- **Solidarioa:** hezkuntza-komunitatearen parte-hartzen eta konpromisoa eskuratzen dugu helburu komun bat lortzeko, mundu justuago bat.

**Ikastetxeak doan jasoko du material guztia.**

## 15 URTE HAURREN ESKUBIDEEN ALDE KORRIKA

Estatu osoko 6.000 ikastetxek baino gehiagok hartu du parte elkartasun-lasterketa honetan. 0 eta 18 urte arteko ikasleek haurren eskubideen alde egiten dute korrika. Ikasturte honetan zenbaki hori gainditu nahi dugu eta **milioi bat haurrek gerrak eskolarik gabe utzi dituen beste milioi bat haurri laguntzea gustatuko litzaiguke, lagunduko diguzu lortzen?**

Laguntzaileak:

TOURLINE EXPRESS — ctt



# ZERGATIK PARTE HARTU?

Errefuxiatu gisa edo gatazka armatu baten erdian bizitzea ez da beti bizitzea izaten. Batez ere, oinarrizko gauzarik ez denean. Janari apur bat besterik jasotzen ez denean, gaixo jartzea hiltzeko arrazoi izan daitekenean, jolasteko parkerik ez denean edo eskolarik ez dagoelako eskolara joan ezin denean.



## ZAZPI URTE ESKOLARIK GABE

Zazpi urte betetzen dituzten haur siriarrek beren bizitza nola aldatzen joan den ikusi dute gerrak aurrera egin ahala. Gerran jaio ziren eta oso txikiak dira beren bizitza Sirian nolakoa zen gogoratzeko. **"Etxea" deitzen diete errefuxiatu-eremuei** eta horixe da askok ezagutzen duten errealitate bakarra. Haur errefuxiatuentzat eskola ez litzateke luxu bat izan behar, **hezkuntzak bizitzak salbatzen dituelako** eta etorkizun hobea izateko esperantza eta aukera onena delako, orainaldian bizi izan duten indarkeriatik errekuperatzen diren bitartean.

Laguntzarik gabe ez dute etorkizunik izango; **ez dira izatera irits daitezkeen ezer izango.** Hori dela-eta errefuxiatu txiki eta ahulen horiei ahotsa jarri eta zure ikastetxearekin gure elkartasun-lasterketan parte hartzeko eskatzen dizugu.

**Lagun iezaguzu gatazken biktima diren haurrentzako hezkuntza lortzen!**

# NOLA ANTOLATU LASTERKETA?

**1 Eman izena**

Bete triptiko honetan aurkituko duzun fitxa eta bidali adierazten dizugun moduan 2018ko urriaren 20a baino lehen.

**2 Jaso materialak**

Doan bidaliko dizugu materiala, bai ikasleena (dortsalak, diplomak eta korrikalariaren-txartela) bai irakasleena, baita jarduera iragartzeko kartela ere.

**3 Aukeratu lasterketaren eguna**



Ikastetxeak erabakitzen du noiz eta nola antolatu lasterketa. Azaroaren 20a (Haurren Eskubideen eguna) edo urtarrilaren 30a (Bakearen eta Indarkeriari ez esateko eguna) aukera onak izan daitezke.

**4 Lortu babesleak**

Ikasleek babesleak bilatzen dituzte beren ingurunean eta beren korrikalariaren txartelean apuntatzen dituzte. Zenbat eta babesle gehiago lortu, ekarpena handiagoa izango da. Lasterketa eta gero dirua bildu eta irakasle-arduradunari ematen zaio. Ikastetxean Save the Children-en kontuan sartuko dugu diru guztia.

**5 Eraiki gizarte justuago bat**

Ikastetxeak eskertza-diploma bat eta elkartasun-lasterketan bildutako dirua zertan erabiliko den azaltzen duen dossierra eta, ikasturtearen amaieran, jardueraren emaitza xehe azaltzen den txostena jasoko ditu.

**Lasterketan izena emateari eta hura antolatzeari buruzko galdera gehiago dituzu? Joan gure web-orrira savethechildren.es/kilometros edo deitu 91 513 05 00**